



Azpeitiko Udala

HERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENERAKO DIRULAGUNTZA PROGRAMA 2024 -I ERANSKINA-: ZERBITZU SEKTOREKO ETA LEHEN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZERA BIDERATUTAKO DIRULAGUNTZAK (24-21D / 2024SUSD)

-Prozeduraren ebazpena I.ERANSKINA-

Alkatetzak 2024ko ekainaren 5ean emandako ebazpenaren bidez, Azpeitiko Herriko Ekonomia sustatzera zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak eta 2024 ekitaldirako deialdia onartu zituen (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko ekainaren 14an argitaratua, 115. zk).

Deialdi horretan ondoren adierazten diren laguntza modalitateak aurreikusten ziren, bakoitzari dagozkion helburuekin:

1. eranskina: Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak

2. eranskina: Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean laguntzera bideratutako dirulaguntzak

3. eranskina: Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak

4. eranskina: I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak

Dirulaguntza modalitate honetan aurkezteko epea amaitu ondoren -2024ko urriaren 15a- guztira **118 eskaera** aurkeztu dira.

Diru-laguntzaren oinarri orokorreko 9. puntuan jasotako prozedurari jarraiki, prozeduraren instrukzioa eman da. Lehenik eta behin, eskabideen aurre-ebaluazioa egin da, eskatzaileen baldintzak eta betekizun administratiboak egiaztatuz. Ondoren, organo instruktoreak eskabideak aztertu ditu Azpeitia Berritzen S.A. eta Iraurgi Lantzen S.A. erakunde adituekin lankidetzan, eta dagokion balorazio teknikoa luzatu du. Azkenik, Udalaren Ekonomia Batzordeak, **2024ko azaroaren 29an** egindako bilkuran, balorazio-txostena bere egin eta dagokion ebazpen-proposamen arrazoitua aurkeztu dio Alkatetzari. Ebazpen-proposamenean, baieztatu kasuetan, bakoitzari dagokion zenbatekoa eta bete beharreko baldintzak zehaztu dira, eta laguntza ez onartzeko kasuak behar bezala arrazoitu dira.

Ebazpen proposamena hamar egunez jendaurrean erakusgai egon da Udalaren web orrian. Aldi berean, erakunde eskatzaile guztiei posta elektronikoz ebazpen-proposamenaren berri eman zaie, eta epe horretan egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan dute.

Jendaurreko epealdian ez da alegaziorik aurkeztu.

Laguntzaren oinarrietako **10.1 artikulua** kontuan izanik, Alkatetzari dagokio dirulaguntzaren ebazpena.

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduera bete eta behar bezala justifikatu



Azpeitiko Udala

badu, ordainketa osoa egingo da. Hala ere, **oinarrien 12. artikularekin bat**, ordainketa aurreratuak ere egin ahal izango dira, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko finantzaketa bermatzeko, justifikazioa aurkeztu aurretik.

Kasu hauetan, ordainketa **bi zatitan** egingo da: lehenengo %40ko ordainketa, deialdiaren ebazpena egin ondoren, eta bigarren ordainketa gainerako %60a, proiektua amaitu eta dirulaguntzaren helburua bete dela behar bezala justifikatu ondoren.

Laguntzaren ordainketak Udalaren 2024ko aurrekontuaren 1.1100.471.241.00.01.2024 “Transf. arruntak, Ekonomia sustapena” eta 1.1100.471.241.00.02.2024 “Transf. arruntak, zerbitzu sektorea eta lehen sektorearen sustapena” partidatik egingo dira.

Eta eskumenari dagokionez, laguntzaren oinarriak jasotakoarekin bat, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Azpeitiko Udalaren alkateak, **ERABAKI DUT**:

Lehena: Azpeitiko Herriko Ekonomia sustatzera bideratutako dirulaguntzak onartzea eta horien ordainketa egitea azalpen atalean zehaztu den moduan, ondorengo taulan zerrenatutako eskatzaileei. Dirulaguntza hauek **I. Eranskinean** jasotako modalitateari dagozkio: Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.

*Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2024
Deialdia: (2024ko ekainak 14ko GAOan argitaratuak 115 zk.)*

***-Prozeduraren ebazpena-**
I ERANSKINA- Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak*

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Prop	Proiektuaren izena	Lagungarri den gastua	Zenbatekoa Arrazoiak	1.ord. %40 edo %100	2.ord. %60
1	2024/06/21	2024SUSD0001	F75181859	Bai	Bertako produktuen kontsumoa	23.769,58€	2.000,00 €	2.000,00 €	0,00€
2	2024/06/25	2024SUSD0002	15990063A	Bai	Inbertsioa	10.847,33€	3.254,20€	3.254,20€	0,00€
4	2024/06/28	2024SUSD0004	72434165N	Bai	Inbertsioa	1.564,91€	469,47€	469,47€	0,00€
6	2024/07/16	2024SUSD0006	44168437L	Bai	Web Jarduera berria Alokairu berria	6.085,69€	3.858,55€	1.543,42€	2.315,13€
8	2024/07/29	2024SUSD0008	B75080895	Bai	Inbertsioa	3.044,38€	913,31€	913,31€	0,00€
9	2024/08/09	2024SUSD0009	E75175521	Bai	Inbertsioa	2.876,36€	862,91€	862,91€	0,00€
10	2024/08/13	2024SUSD0010	15389352Y	Bai	Efizientzia energetikoa	1.832,70€	916,35€	0,00€	916,35€
11	2024/09/02	2024SUSD0011	72451918D	Bai	Inbertsioa	4.874,44€	1.462,33€	1.462,33€	0,00€
12	2024/09/03	2024SUSD0012	72452369T	Bai	Jarduera berria Alokairu berria	26.200,00€	6.000,00€	5.400,00€	600,00€
13	2024/09/05	2024SUSD0013	E02747269	Bai	Inbertsioa	3.495,00€	1.048,50€	1.048,50€	0,00€
17	2024/09/13	2024SUSD0017	Y5110186Z	Bai	Jarduera berria Alokairu berria	12.029,44€	5.343,55€	0,00€	5.343,55€
19	2024/09/17	2024SUSD0019	G20083085	Bai	Bertako produktuen kontsumoa	1.667,78€	1.334,22€	1.334,22€	0,00€



Azpeitiko Udala

24	2024/09/30	2024SUSD0024	E56452873	Bai	Inbertsioa	2.208,60€	662,58€	662,58€	0,00€
25	2024/10/01	2024SUSD0025	G75154195	Bai	Inbertsioa	86,25€	25,88€	25,88€	0,00€
30	2024/10/02	2024SUSD0030	44336351X	Bai	Alokairua A eremua	3.472,81€	1.736,41€	694,56€	1.041,85€
31	2024/10/03	2024SUSD0031	B56923949	Bai	Alokairua A eremua	9.000,00€	3.000,00€	1.200,00€	1.800,00€
32	2024/10/03	2024SUSD0032	72461121N	Bai	Web Jarduera berria	1.338,49€	1.051,60€	1.051,60€	0,00€
35	2024/10/03	2024SUSD0035	34102992H	Bai	Inbertsioa	1.362,56€	408,77€	408,77€	0,00€
36	2024/10/03	2024SUSD0036	72574325X	Bai	Inbertsioa	5.550,24€	1.665,07€	1.665,07€	0,00€
37	2024/10/04	2024SUSD0037	72461435G	Bai	Inbertsioa	5.018,93€	1.505,68€	1.505,68€	0,00€
38	2024/10/04	2024SUSD0038	B75155143	Bai	Inbertsioa	1.655,08€	496,52€	496,52€	0,00€
42	2024/10/09	2024SUSD0042	Z1674775N	Bai	Jarduera berria Alokairu berria	15.400,00€	6.000,00€	2.400,00€	3.600,00€
43	2024/10/09	2024SUSD0043	B72967755	Bai	Inbertsioa	1.800,00€	540,00€	216,00€	324,00€
46	2024/10/09	2024SUSD0046	B20611117	Bai	Inbertsioa	5.689,93€	1.706,98€	1.706,98€	0,00€
47	2024/10/09	2024SUSD0047	44332149V	Bai	Jarduera berria	2.330,50€	1.864,40€	1.864,40€	0,00€
48	2024/10/09	2024SUSD0048	44135395M	Bai	Jarduera berria	5.383,89€	4.307,11€	4.307,11€	0,00€
53	2024/10/09	2024SUSD0053	20895120B	Bai	Inbertsioa	281,00€	84,30€	84,30€	0,00€
56	2024/10/10	2024SUSD0056	E56534928	Bai	Bertako produktuen kontsumoa Alokairua A eremuan Jarduera berria	33.837,52€	8.039,76€	6.239,76€	1.800,00€
60	2024/10/11	2024SUSD0060	G75005272	Bai	Bertako produktuen kontsumoa Inbertsioa	236.805,27€	8.641,38€	8.641,38€	0,00€
63	2024/10/11	2024SUSD0063	F20035846	Bai	Efizientzia energetikoa	27.044,15€	5.000,00€	5.000,00€	0,00€
67	2024/10/14	2024SUSD0067	B20921771	Bai	Inbertsioa	2.584,15€	775,25€	775,25€	0,00€
68	2024/10/14	2024SUSD0068	B75215392	Bai	Inbertsioa	1.292,34€	387,70€	387,70€	0,00€
69	2024/10/14	2024SUSD0069	72480042G	Bai	Jarduera berria	6.296,76€	5.000,00€	5.000,00€	0,00€
70	2024/10/14	2024SUSD0070	34097604N	Bai	Inbertsioa	10.862,08€	3.258,62€	3.258,62€	0,00€
71	2024/10/14	2024SUSD0071	J75043042	Bai	1. sektorea	1.720,00€	1.376,00€	1.376,00€	0,00€
72	2024/10/14	2024SUSD0072	B75189670	Bai	Inbertsioa	10.130,00€	3.039,00€	0,00€	3.039,00€
75	2024/10/14	2024SUSD0075	B56533581	Bai	Jarduera berria Alokairu berria	10.141,28€	3.512,00€	1.404,80€	2.107,20€
76	2024/10/14	2024SUSD0076	B10563369	Bai	Inbertsioa	1.663,80€	499,14€	499,14€	0,00€
78	2024/10/14	2024SUSD0078	72314841N	Bai	Jarduera berria	704,62€	563,70€	225,48€	338,22€
85	2024/10/14	2024SUSD0085	44158369W	Bai	1. sektorea Jarduera berria	97.000,00€	7.000,00€	0,00€	7.000,00€
91	2024/10/14	2024SUSD0091	B10782027	Bai	Jarduera berria	5.796,24€	4.636,99€	0,00€	4.636,99€
96	2024/10/14	2024SUSD0096	B75223727	Bai	1. sektorea	2.625,29€	2.000,00€	2.000,00€	0,00€
98	2024/10/14	2024SUSD0098	72437657P	Bai	Inbertsioa	2.748,67€	824,60€	824,60€	0,00€
99	2024/10/14	2024SUSD0099	34364037J	Bai	Alokairu berria	3.000,00€	1.000,00€	400,00€	600,00€
102	2024/10/15	2024SUSD0102	44128883W	Bai	Inbertsioa	4.718,12€	1.415,44€	0,00€	1.415,44€



Azpeitiko Udala

114	2024/10/15	2024SUSD0114	72439503Z	Bai	Bertako produktuen kontsumo	303,13€	151,57€	151,57€	0,00€
118	2024/10/10	2024SUSD0118	79498443R	Bai	Jarduera berria	6.100,00€	4.880,00€	1.952,00€	2.928,00€
							114.519,84€	74.714,11€	39.805,73€

Bigarren: Jarraian zehazten diren espediente hauetako onuradunen laguntzaren ordainketa baldintzatuta geratuko da oinarrietako **2.9 puntuan** jasotako baldintza betetzerara: **udalean jarduerari dagokion tramitazioa amaituta egotea edo tramitazioan izatea.**

Udalean jarduerari dagokion tramitazioa amaituta edo tramitazioan izatea egiaztatu behar duten erakunde onuradunak honako hauek dira:

2024SUSD0010

2024SUSD0017

2024SUSD0072

2024SUSD0085

2024SUSD0091

2024SUSD0102

Hirugarrena: Onuradunek beharrezkoa izango dute laguntzaren justifikazioa aurkeztea, segidan jasotako epeetan. Justifikazioak oinarri orokorren 13. artikuluan eta eranskinari dagokion oinarri espezifikoan jasotako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

- Oinarrietako 12. artikuluan zehaztutakoaren arabera, laguntzak justifikatzeko azken eguna, a.3) eta d) azpilerroei dagozkienak izan ezik –alokairua–, 2024ko abenduaren 15a izan da.

- Alokairu laguntzen kasuan, justifikazio epea kontratuaren azken ordainketatik hilabete batekoa izango da.

- Zuriketa agiriak aurkezteko azken eguna 2025eko urriaren 15a izango da.

Laugarrena: Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

Erakunde onuradunek dirulaguntza onartzeak berekin dakar oinarrietan eta Azpeitiko Udalaren Dirulaguntzak Emateko Ordenantza Arautzailean oro har ezarritako betebeharrak betetzea.

Oinarri espezifikoetan jarduera-ildo bakoitzerako jasotzen diren betebeharrak espezifikoek gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hamabost eguneko epean onuradunak diru- laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da.
- b) Laguntzaren xede den gastua emakida-ebazpenean ezarritako epean gauzatzea.
- c) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke. Azpeitiko Udalari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak



Azpeitiko Udala

betetzean eskatzen dieten informazio guztia ematea.

- d) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu bada, Azpeitiko Udalari horren berri ematea, idatziz. Jakinarazpen hori gorabehera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.
- e) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzea, eta erakundearen komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan eta/edo web-orrietan emakumeen kontrako edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestea.
- f) Dirulaguntzaren xede diren proiektu edo jarduketan finantzaketan Azpeitiko Udalak izan duen lankidetzari publizitate egokia ematea. Horretarako, haren erakunde-irudia sartuko da, bai eta finantzaketa publikoari buruzko legendak ere, karteletan, oroitzapenezko plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, eta komunikabideetan egindako agerpenetan aipamena egingo da.

Bostgarrena: Azpeitiko Herriko ekonomia sustatzera bideratutako dirulaguntza ez onartzea, kasu bakoitzean jasotako arrazoiaren arabera, ondorengo taulan zerrendatutako eskatzaileei. Dirulaguntza hauek **I. Eranskinean** jasotako modalitateari dagozkio: Zerbitzu sektorean eta/edo lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.

*Azpeitiko Herriko Ekonomia Sustatzera zuzendutako Dirulaguntza Programa 2024
Deialdia: (2024ko ekainak 14ko GAOan argitaratuak 115 zk.)*

*-Prozeduraren ebazpena-
I ERANSKINA- Zerbitzu sektoreko eta lehen sektoreko jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak*

Zb	Data	Espedientea	NAN/IFK	Prop	Proiektuaren izena	Lagungarri den gastua
5	2024/07/09	2024SUSD0005	E75232439	Ez	Inbertsioa	2023 ekitaldian lagundutako inbertsioa
44	2024/10/09	2024SUSD0044	B42962738	Ez	Bertako produktuen kontsumoa	Ez da zuzenketa agiririk aurkeztu
80	2024/10/14	2024SUSD0080	60332403E	Ez	Inbertsioa	3.artikuloa ez da betetzen; egiaztatutako JEZ epigrafeak ez da lagungarri
83	2024/10/14	2024SUSD0083	72451625S	Ez	Inbertsioa	3.artikuloa ez da betetzen; egiaztatutako JEZ epigrafeak ez da lagungarri
86	2024/10/14	2024SUSD0086	X6057310F	Ez	Inbertsioa	5.artikuloa ez da betetzen; epez kanpoko jarduera
109	2024/10/15	2024SUSD0109	E10556959	Bai	Inbertsioa	Ez da zuzenketa agiririk aurkeztu

Seigarrena: Laguntzaren ordainketak Udalaren 2024ko aurrekontuaren 1.1100.471.241.00.01.2024 “Transf. arruntak, Ekonomia sustapena” eta 1.1100.471.241.00.02.2024 “Transf. arruntak, zerbitzu sektorea eta lehen sektorearen sustapena” partidatik egingo dira.



Azpeitiko Udala

Zazpigarrena: Erabaki hau Udalaren web orrian eta Estatuko Dirulaguntzen Datu Basean argitaratuko da. Era berean, argitaratzen den egunean bertan, Udalak abisu bat bidaliko die erakunde eskatzaile guztiei posta elektronikoz, ebatzitako laguntzen berri emateko.

Zortzigarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko Alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Azpeitia, 2024ko abenduaren 27a

